

HITZARMEN PROBINTZIALA 2010

LABen BALORAZIOA IRAILAK 28KO GIPUZKOAKO METALEKO NEGOZIAZIO MAHAIAREN GAINEAN

Gaur, Irailak 28, Gipuzkoako metaleko mahaiaren bilera deitua zegoen ELA eta LAB sindikatuen eskutik. Aipatu bi sindikatuok eta UGT sindikatuko partaidea bilerara agertu dira eta CCOO sindikatua ez da bertaratu. ADEGI ere, aurreko egunetan bere prentsa oharrean iragarri zuen bezala, ez da agertu bilerara.

ADEGIk beste behin ere negoziatzeko borondate falta erakutsi du eta negoziazio mahaira ez da agertu. Bere arduragabekeria estaltzeko asmoz ez du egi osoa esaten, 9 egunetako greba bere horretan ez delako mantentzen.

Irailaren 22ko bileran, ADEGIk bere orain arteko jarreraren aldaketa zantzuak erakutsi zituen. Negoziazioa egungo hitzarmena abiapuntutzat hartuta hasteko prestutasuna erakutsi zuen nahiz eta ez zuen proposamen zehatzik ekarri.

LABentzat guztiz askieza da atzo patronalaren aldetik mahai gainean jarritakoa akordioa erdiesteari begira. Honela, beharrezko ikusten dugu greba eta mobilizazioekin jarraitzea.

Langileen borrokari esker lortu dugu Adegiren jarrera aldatzea. Aurtengo negoziatioari (patronalaren proposamen guztiz atzerakoa dela eta) minus egoera batetik ekin genion eta orain puntu 0 batean gaudela esan genezake. Oraindik akordioaren inolako zantzurik ez dago.

Adegirengan egondako jarrera aldaketari balioa eman genion eta negoziatzen jarraitzeko borondateari eutsiz, LABek 9 egunetako lehen bi greba egunak bertan behera uzteko aukera proposatu genuen negoziazio mahaiaren.

Adegik borondate horri eutsi ordez, ordago berri bat bota zuen mahai gainean, sindikatuok greba egun guztiak deskonbokatu ezean negoziazio mahai utziko zuela mehatxu eginez. Bere jarrera guztiz onartezina da, negoziatioari bidea zabaltzeko prest azaldu gara LABetik eta horretarako lehen bi greba egunak bertan behera utzi genituen eta enpresariak berriro ere negoziatioari atek ixtea erabaki zuten.

Beste behin ere enpresarien jarrera arduragabearen aurrean sindikatuok arduraz jokatzera erabaki genuen. Grebak deitu ditugun gehiengo sindikalaren partetik irailaren 27 eta 28ko greba egunak bertan behera utzi genituen.

Hurrengo grebak Urriak 13,14,15 eta Azaroak 2,3,4,5 dira eta indar guztia jarriko dugu greba horietan baldin eta bitartean Adegik ez badu proposamen egoki bat egiten. Gure

borondatea, akordio batetara iristea da baina ADEGIk bere jarrera aldatzen ez badu, konfrontazio zuzena izango da geratzen zaigun aukera bakarra.

VALORACION DE LAB SOBRE LA ÚLTIMA REUNIÓN DE LA MESA NEGOCIADORA DEL METAL DE GIPUZKOA, CON FECHA DE 28 DE SEPTIEMBRE.

Hoy, 28 de septiembre, estaba convocada la mesa negociadora del metal de Guipúzcoa por los sindicatos ELA y LAB. Los sindicatos convocantes y UGT han acudido a la cita prevista. CCOO, no se ha dignado a aparecer. ADEGI, tal y como había anunciado en una nota de prensa la semana pasada, tampoco ha aparecido a la reunión.

ADEGI ha abandonado la mesa de negociación demostrando una vez más nula voluntad negociadora. Con el objeto de esconder su irresponsabilidad no cuenta toda la verdad, cuando dice que mantenemos 9 días de huelga.

En la reunión del 22 de septiembre ADEGI mostró señas de cambio en la actitud mantenida hasta el momento. No trajo ninguna propuesta concreta pero se mostró dispuesta a iniciar la negociación tomando como base el actual convenio.

Aún así, en aras de llegar a un acuerdo, LAB ha propuesto desconvocar las dos primeras huelgas pero ADEGI no cogió el guante, lanzando un nuevo órdago: si los sindicatos no desconvocáramos los 9 días de huelga, abandonaríamos la mesa de negociación. Su actitud es totalmente inaceptable.

Aún así, LAB nos hemos mostrado dispuestos a abrir camino a la negociación y para ello manifestamos nuestra intención de dejar sin efecto los dos primeros días de huelga. La patronal una vez más ha decidido cerrar la puerta a la negociación.

La lucha de las y los trabajadores ha sido la que ha llevado a ADEGI a cambiar de actitud. Al inicio de la negociación de este año, estábamos en una situación de minus (debido a la propuesta totalmente regresiva de la patronal), ahora podemos decir que estamos en una situación 0. El acuerdo sigue estando lejos.

Pero una vez más, ante la actitud totalmente irresponsable de la patronal, los sindicatos ELA y LAB decidimos actuar con responsabilidad. Por parte de la mayoría sindical que ha convocado las huelgas, quedan sin efecto las del 27 y 28 de septiembre.

Las siguientes huelgas son el 13,14,15 de octubre y el 2,3,4,5 de noviembre y pondremos toda la carne en el asador para sacar las huelgas, a no ser que ADEGI haga una propuesta adecuada. Nuestra voluntad es llegar a un acuerdo justo, pero si ADEGI no cambia de actitud, no tendremos más remedio que ir a la confrontación.



Donostia 2010-09-29